

Laudio, 2021eko irailaren 7a

Laudiok gerra garaiko eta gerraosteko abusuak eta indarkeria jasan zuten emakume aitzindariak omenduko ditu "Itzalpeko emakumeak" erakusketarekin

Ander Añibarroren herria izango da erakusketa hartuko duen Arabako lehen udalerrria, joan den otsailean Tolosan estreinatu zena

XX. mendeko historian euskal emakume anonimoen ekarpenak berreskuratu eta zabaltzearen aldeko apustua egitea da Laudioko Udalak lortu nahi duen konpromisoetako bat. Horregatik, "Itzalpeko emakumeak" erakusketa ibiltari eta eskusiboa herritarrei hurbiltzea erabaki du. Erakusketa joan den otsailean estreinatu zen lehen aldiz Tolosan, eta Laudioko Kultura Etxera iritsiko da datorren ostiralean eta azaroaren 10era arte luzatuko da.

Sabino Arana Fundazioaren babesaren bidez, audioarrak aukera izango dute euskal emakumeek Gerra Zibilean eta gerraostean jasandako abusuak eta indarkeria ezagutzeko. Baina ez bakarrik hori. Baldintza gogor haietan ere gizarteko hainbat alorretan gailendu ziren emakumeen ekarpenak azaleratuko ditu erakusketak. Hala ere, errepresio- eta mendekotasun-giro horretan, zenbait emakumek lan handia egin zuten, batzuk politikagintzan eta erresistentzian, beste batzuk kultur arloan, euskararen aldeko lanean edota gizarte zerbitzuetan.

Horien guztien artean, batzuk erbestea ezagutu zuten, bonbardaketengatik eta ezarri zituzten arau inposatzaileetatik ihesi. Beste batzuk, fusila bizkarrera bota eta guda-zelaiara joan ziren, erretagoardian erizain gisa aritu ziren, edo

klandestinitatean diktaduraren aurka egin zuten. Eta hori guztia ama izanda. Emakume hauek guztiak dira ekimen honen protagonista eta arima. Gainera, Ander Añibarroren herria izango da erakusketa hartuko duen Arabako lehen udalerria.

Aiarako emakumeak

Aldeko ez zuten gizarte batean lagundu zuten audioarrak eta Aiara bailarako emakumeak ere gogoratuko dituzte "Itzalpeko emakumeak" erakusketan, nahiz eta hori Kasinoan prestatuko duten beren beregiko espazio batean izan. Erakusketak horietako hamarren testigantzak eta bizipenak bilduko ditu. Proiektu honekin, Audio Udalak IV. Berdintasun Planean zehaztutako helburuak betetzen ditu, hala nola Audioko emakumeek kulturaren egiten dituzten ekarpenak ikusaraztea eta memoria historikoa berreskuratzen laguntzea.

"Baztertuta edota izkinatuta egon diren emakumeen aurpegiak, ahotsak, balioak eta funtzioak berreskuratu, zabaldu eta balioan jartzea da helburua. Baita emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren bidean gizartearen sentsibilizatzea eta kontzientziaztea ere ", adierazi du Ander Añibarro alkateak. "Erakusketa lagungarria izango da egungo errealitatea interpretatzeko, memoria historikoa berreskuratzeke eta bizikidetzatik eta berdintasunetik abiatuta etorkizuna eraikitzeke", gaineratu du Maite Cortazar Kultura zinegotziak.

Emakume zoragarri horien iragana ezagutu nahi duten herritarrek Kultura Etxera joan ahal izango dira ohiko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 10.00etatik 13.00etara eta 16.30etik 21.00etara eta, larunbatetan, 10.00etatik 13.00etara eta 17.00etatik 20.00etara. Kasinoko ateak 17.00etatik 20.00etara egongo dira zabalik

ostiral eta larunbatetan. Bestalde, eta udalerriko gazteak sentsibilizatzeko asmoz, Laudio Udalak ikasleekin joateko aukera eman nahi die herriko ikastetxeei. "Proiektua gure gizartea osatzen duten belaunaldiak hurbiltzeko bidea izango litzateke", adierazi du Loli Muriel Berdintasun zinegotziak.

Erakusketa ostiral honetan zabalduko da arratsaldeko 19.00etan Kasinoko terrazan.